

NORA

Lara Izagirre Garizurietak idatzia

BAR. NORAREN ETXEA. EGONGELA. EGUNA

NORA (30) aulki batean eserita dago egongelaren erdian. Kolore biziko jantziak dauzka aldean, eta zapi estanpatu bat ilean. Eskuz landutako koaderno bat dauka esku artean.

Parez-pare, sofan eserita, pijama eta bata aldean, AITITE NIKOLAS (85) dago; hoditxoak dauzka sudurretan, makinatik oxigenoa hartuz.

Alboan ELENE (9) eta MARKEL (6) daude, gurpil-aulki batean elkarren ondo-ondoan eserita.

Erdi mailako klaseko egongela familiarrak egurrezko altzari soilak dauzka. Landareek, koloretako mantek eta hormetan markoetan jarritako ilustrazioek gazte ukitu bat ematen diote etxe zaharrari.

NORA

(gazteleraz)

Nire bizitzako aukera da hau eta ezin duzue imajinatu zein garrantzitsua den niretzat. Ez dut aukera pasatzen utziko.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz, doinu
argentinarez beti)

Ezin diezu hori esan. Etsita zaudela ematen du.

NORA

(gazteleraz)

Etsita nago eta.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Disimulatu egin behar duzu.

ELENE

Zergatik ez gara ile-apaindegira joaten?

NORA

Ez nauzu polit ikusten ala?

Norak ilea eta zapia txukuntzen ditu.

MARKEL

Nora polita da.

NORA

Eskerrik asko, Markel.

Norak, aulkitik bertatik, koadernoak erakusten die Elene,
Markel eta Aitite Nikolasi.

NORA

Tira. Galde egidazue zer edo zer.

Norak koadernoak mugitzen du.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Hori zer da, koaderno bat?

NORA

(gazteleraz)

Pozten naiz galdera hori entzuteaz.
Proposamen berritzaile bat daukat
esku artean, bidaiak-kazetaritza
desberdin bat, bisualagoa.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Komertziala dirudizu.

Norak koadernoko orriak pasatzen ditu eta hirurei erakusten
dizkie, aulkitik.

MARKEL

Zer dira, marrazkitxoak?

ELENE

Norak egiten dituen akuarelak dira.

NORA

(gazteleraz)

Ez dira akuarela soilak. Teknika
mistoa da.

Nora altxa egiten da eta koadernoak ematen die, ikus dezaten.

ELENE

Oso polita da.

Markelek azala irakurtzen du.

MARKEL

Atacama.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Ez zara sekula Txilen izan eta.

NORA

(gazteleraz)

Adibide bat da, aitite.

MARKEL
Zer da Atacama?

Elenek koadernoan begiratzen du.

ELENE
Hareaz betetako leku bat.

NORA
(gazteleraz)
Testura desberdinen jokoa hauteman
dezakezue. Banaka editatu ahal
izango dira gero, liburuki gisa.
Eta, aldizkarirako, kapituluak egin
daitezke. Irakurleari interesgarria
eta aldi berean pertsonala
suertatuko zaion zerbait. Iranerako
zera ari naiz pentsatzen...

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Baina, serio ari zara? Iran?

ELENE
(gazteleraz)
Bai aitite, Iranera joango da Nora.

NORA
(gazteleraz)
Zergatik uste duzu ari garela
entseatzen ba?

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Eta ni?

MARKEL
(gazteleraz)
Lasai, aitite. Zuretzako pisu bila
joan ginen atzo.

NORA
(gazteleraz)
Joder, Markel.

ELENE
(gazteleraz)
Den-dena da zuria, eta oso hutsik
dago.

MARKEL
(gazteleraz)
Ohea sandwich egiten da.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Zer, zaharren egoitza hori? Ni oso ondo nago, Nora.

NORA

(gazteleraz)

Oso ondo zaudela? Bada, orduan erabili gurpil-aulki berria!

Nora altxa egiten da. Elene eta Markel gurpil-aulkitik jaitsi eta sofán esertzen dira.

Norak, aulkia hartu, eta aitonaren aurrean jartzen du.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Eta nork egingo dio bultza aulkiari zu ez zaudenean, Nora?

ELENE

Guk.

NORA

(gazteleraz)

Bi gidari, baten faltan. Ea, eseri aulkian, dirutza ordaindu dut eta.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Ni ez naiz hemendik inora joango. Bakarrik ibil naiteke, eta makilarik gabe ere bai, gainera. Baietz, Markel?

MARKEL

(gazteleraz)

Ez dakit.

NORA

(gazteleraz)

Mila esker zuen laguntzagatik.

Norak gurpil-aulkia utzi eta atera egiten da egongelatik.

BAR. NORAREN ETXEA. SUKALDEA. EGUNA

Nora ordenagailuaren aurrean dago eserita, bideo-deia egiteko pantaila prest daukala.

Ordenagailuan dei baten soinua entzuten hasten da. Norak ez du erantzuten.

Aulkitik altxa eta sukaldean barrena dabil Nora, arnasa sakon hartzen du lasaitzeko eta berriz esertzen da aulkian.

Erantzuteko botoiari ematen dio, baina bukatu egin da deia. Geldi geratzen da. Berriz deitzen dute eta erantzun egiten du. Pantailan JULIE (50) ikusten da.

NORA

(ingelesez)

Kaixo Julie, barkatu erantzun ez izana, baina ez nengoen prest, sukaldean nenbilen alde batetik bestera bueltaka.

Norak barretxo urduri bat egiten du.

JULIE

(ingelesez)

Lasai Nora, laster bukatuko dugu eta.

NORA

(ingelesez)

Oso ilusionatua nago, gauza batzuk aurreratu ditut. Badaukazue daten berririk?

JULIE

(ingelesez)

Lasaiago hitz egin nahi dugu zure proposamenaz.

NORA

(ingelesez)

Oso ondo.

Aitite Nikolas sartzen da sukaldean, eztulka. Norak berarengana begiratu eta sukaldetik ateratzeko keinua egiten dio.

AITITE NIKOLAS

(gasteleraz)

Ur pixka bat. Lehor-lehor utzi nau siestak.

NORA

(ingelesez)

Barkatu.

Norak, altxa, eta baso bete ur ematen dio Aitite Nikolasi. Aitite mahaiaren beste aldean esertzen da eta ura edaten du.

Nora ordenagailuaren aurrera itzultzen da.

JULIE

(ingelesez)

Arretaz baloratu dugu zure proposamena. Artisau-lan nabarmena iruditu zaigu, fina eta ederra.

NORA

(ingelesez)

Mila esker.

MARKEL

Noraaaa!!! Puzker handi bat daukat!!!

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Egon isilik, Markel.

NORA

Orain ezin dut, Markel. Non dago zure arreba?

MARKEL

Ezin diot eutsi. Noraaaa!!! Kaka da!!!

NORA

(ingelesez)

Barkatu.

Norak ordenagailua alde batera biratu eta Aitite Nikolasekin hitz egiten du.

NORA

(gazteleraz)

Esan Markeli gainean kaka egiten badu ez diola axola, gero garbituko diodala arropa.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Nola esango diot hori mutikoari.

Aitite Nikolasek egongelara begiratzen du.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Markel, zatoz hona, neuk lagunduko dizut.

Markel sukaldean sartzen da.

MARKEL

(gazteleraz)

Atera egin zait pixka bat. Puzkerra zela uste nuen.

NORA

Bale. Egon geldi hor, ez zaitez inon eseri. Honekin bukatu behar dut lehenengo. Ez jarri hormaren kontra.

Nora berriz esertzen da ordenagailuaren aurrean.

JULIE

(ingelesez)

Hori da hori iskanbila! Haurrik ez zenuela uste genuen.

NORA

(ingelesez)

Ez dira nireak. Lagun batenak dira.

JULIE

(ingelesez)

Oso ondo.

NORA

(ingelesez)

Orduan, gustatu zaizue nire proposamena. Oso motibatua nago.

JULIE

(ingelesez)

Ados. Baina badakizu gure aldizkaria idazleentzako aldizkari bat dela. Idatzizko testuan oinarritzen den aldizkari bat.

NORA

(ingelesez)

Bai. Nazioarteko bidaia-idazle onenekin gainera.

Elene sukaldean sartzen da, liburu bat irakurtzen. Markelek eta Aitite Nikolasek geldiarazi egiten dute. Zutik gelditzen da, Markelen ondoan.

JULIE

(ingelesez)

Badirudi ez dugula ondo elkar ulertzen.

NORA
(ingelesez)
Jakina baietz. Interes handia
daukat, benetan, barkatu etendura
hauek denak.

JULIE
(ingelesez)
Ez da hori. Zure proposamenak ez du
azken pausua gainditu. Goikoek ez
dute ongi hartu.

NORA
(ingelesez)
Baina goikoa zu zara, ez?

JULIE
(ingelesez)
Ez goikoa, ez behekoa.

NORA
(ingelesez)
Proposamen desberdin bat egin dut
eta ziur nago ondo funtzionatuko
duela. Eta ikusi zenutena baino
arinagoa da, eskatu zenuten bezala.

Ordenagailuaren ondoan daukan Atacamako koadernoak erakusten
dio Norak.

JULIE
(ingelesez)
Ez zara entenditzen ari.

Arnasa hartzen du Norak.

NORA
(ingelesez)
Ari naiz entenditzen, bai. Ez naiz
ergela

ELENE
(ingelesez)
Nora ez da ergela.

MARKEL
(ingelesez)
Ez da ergela.

Begiak malkoz betetzen zaizkio Norari.

AITITE NIKOLAS
(gasteleraz)
Zer gertatzen da? Zer diote?

JULIE
(ingelesez)
Kaleratua zaude.

NORA
(ingelesez)
Ez nauzue eta kontratatu!

JULIE
(ingelesez)
Asko sentitzen dut. Agian izango
dugu elkarlanerako aukerarik
etorkizunean.

NORA
(ingelesez)
Ez, mila esker.

Norak ordenagailuko pantaila ixten du. Elene, Markel eta Aitite Nikolasi begiratzen die. Ozen egiten du oihu.

Elene eta Markel Norari begira gelditzen dira eta oihu egiten dute beraiek ere. Aitite Nikolasek ere oihu egiten du.

BAR. TABERNA. GAUA

Nora taberna bateko aulki batean dago eserita. Hiru gin tonic edalontzi huts dauzka aurrean. Taberna hutsik dago. JON (30) aulkiak ahoz behera jartzen ari da barraren gainean, lurra garbitzeko.

NORA
Jarri beste bat, Jon!

JON
Ezetz uste dut.

NORA
Merezi dut laugarren bat.

Jon lurra garbitzen hasten da.

JON
Egun txarra, ala?

NORA
Popatik hartzera bidali naute.

JON
Lanen bat?

NORA

Lanen bat ez, lana, lana
maiuskulaz.

Jonek lurra garbitzen jarraitzen du. Nora, altxa, eta
barraren bestaldera pasatzen da. Begiratu egiten du Jonek.

Nora gin tonic bat prestatzen hasten da.

NORA

Nahi duzu bat?

Irribarre egiten du Jonek.

JON

Tira, jar iezadazu bat.

Norak bi gin tonic prestatzen ditu. Limoi-xerra bana jartzen
du edalontzietan.

Jon aulki batean esertzen da. Prestatutako gin tonic bat
pasatzen dio Norak. Probatu egiten du Jonek.

JON

Zerbitzari izan zintezke.

NORA

Gauza asko izan ninteke. Eta ez
naiz bat bera ere.

JON

Ba niretzako beti izan zara
demasekoa.

NORA

A, bai?

JON

Ikastolako nire maitasun
platonikoa.

NORA

Ni?

JON

Zugatik egin nintzen "spice girl".

NORA

Ez nuen horren berri ba.

JON

8 urte luzeko maitasuna eta ez
zenuela horren berri?

Barre egiten du Norak.

NORA

Ba sentitzen dut esatea, baina
"spice kirolaria" mozkor galanta
da. "Spice pija" aukera hobea
izango litzatekeen.

JON

Nor, Meri?

NORA

Ezkondua. Seme-alaba eder batzuk.
Ile-apaindegi propioa. Hipoteka.

JON

Nik nahiago dut kirolaria.

Nora barratik ateratzen da eta ostiko bat ematen du airean,
erori egiten zaio gin tonic erdia eta tonuz kanpo abesten du.

NORA

If you wanna be my lover...

Nora Jonen aldameneko aulkian esertzen da. Nora Joni begira
gelditzen da, isilik.

Norak musu ematen dio Joni eta erori egiten da aulkitik.
Barre egiten du Jonek. Norak ere bai.

NORA

Badakizu bi urte direla ez niola
inori musurik ematen?

JON

Badakizu emaztea eta bi seme-alaba
dauzkadala?

NORA

Espero biharko ahaztuta edukitzea.

JON

Niri musu hau ez zait ba ahaztuko.

NORA

Kaka.

Tabernatik ateratzen da Nora.

BAR. MERIREN ETXEA. BAINUGELA. GAUA

Nora eta Meri komunean daude. Bainugelan dena dago lurretik,
nahaste handia da.

Umeen gauzak daude alde batean, bestean oraindik garbitu gabe dauden arropak. Dutzako horman koloretako arrainen pegatinak daude.

Nora botaka ari da. Merik burua eusten dio Norari.

MERI

Jon "spice ilehoriari" musu eman diozu?

Botaka gehiago egiten du Norak. Oka egiten bukatu eta lurrean esertzen da, bainugelako hormaren kontra.

NORA

Barkatu. Ze nazka.

MERI

Ez da ezer gertatzen.

Merik komuneko ponpatik tiratzen du.

NORA

Ez dakizu zein garrantzitsua zen niretzat. Nolako ilusioa egiten zidan.

MERI

Ez nekien, ez. Txikiek kontatu didate. Iranekoa ondo zegokeen.

NORA

Lagun kaskarra zara.

MERI

Ez didazu ezer kontatzen.

NORA

Ez naiz haurtzain bat.

MERI

Markelek eta Elenek gehiago zekiten lanaz nik baino.

NORA

Denbora gehiago ematen dut beraiekin eta.

MERI

Ni ere gaizki nago. Bakarrik haurrekin.

NORA

Senar bat daukazu.

MERI

Txandaka lan egiten duena, eta nire bi ile-apaintzaileak bajan.

NORA

Badakizu zer egin zuen Markelek elkarrizketaren erdian?

MERI

Puzker "margolari" bat.

Barre egiten du Norak. Meri negarrez hasten da.

NORA

Ez egin negarrik.

MERI

Objektiboki, nire bizitza ezinezkoa da. Ezin dut gehiago. Ez zintudan esklabo bihurtu nahi.

Noraren erlojuko alarmak jotzen du.

NORA

Pilulen ordua.

MERI

Nikolasek badaki pilulak bakarrik hartzen.

NORA

Asko maite dut zahartxo.

Isilik gelditzen da.

NORA

Zergatik ez gara batera bizitzen eta bion artean denak zaindu?

MERI

Eta zer egingo dut Ikerrekin?

NORA

Dibortzio espres bat. Eta egin diezazula gaueko bisitaren bat edo beste.

Barre egiten du Merik. Norak begiak itxi eta Meriren sorbaldan jartzen du burua.

BAR. NORAREN ETXEA. SARRERA. EGUNA

Etxean sartzen da Nora. Atarian, lurrean horma kontra eserita, Aitite Nikolas dago, arnasa zail hartzen duela. Korrika gerturatzen zaio Nora.

NORA

(gazteleraz)

Aitite, ondo zaude? Zer ari zara hor? Erori egin zara?

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Oso ondo nago, bikain. Zuk itxura txar-txarra daukazu, ordea.

NORA

(gazteleraz)

Sentitzen dut. Sentitzen dut.
Sentitzen dut.

Nora korrika doa egongelara. Pilula-kaxa bat dakar berarekin.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Hartu ditut jada.

NORA

(gazteleraz)

Ziur zaude?

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Bai.

NORA

(gazteleraz)

Zaindu egin behar zaitut. Eta ez naiz zaintzen ari. Jope, aitite. Hau dena nire errua da. Deituko diot anbulantziari? Ekarriko dizut aulkia?

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Ekarri txokolate pixka bat eta eseri hemen nirekin.

Nora korrika doa sukaldera, eta txokolate beltz tableta bat dakar berarekin. Norak tableta ematen dio Aitite Nikolasi. Aititek ezin du zatirik apurtu. Norari bueltatzen dio tableta. Norak tableta txikitu eta ontza bat ematen dio Aititeri.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Eseri eta jan ontza bat zuk ere. On
egingo dizu ajerako.

NORA

(gazteleraz)

Ez daukat ajerik, aitite. Ziur ondo
zaudela?

Aitite Nikolasek bere ontza jaten du. Irribarre egiten du.
Bere alboan esertzen da Nora. Berak ere pusketa bat jaten du.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Goxoa dago.

Norak baietz egiten du buruarekin eta Aitite Nikolasi
begiratzen dio.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Noizbait erretzeari uzten badiot.

NORA

(gazteleraz)

Ez duzu erretzen.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Noizbait caput egiten badut.

Aitite Nikolasek eskua jartzen du sama azpian.

NORA

(gazteleraz)

Ez diozu erretzeari utziko eta ez
duzu caput egingo. Ekarriko dizut
oxigenoa?

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Ez dut behar. Nekatu samar nago.

Norak Atacamako koadernoak ikusten du lurrean, Aitite
Nikolasen ondoan. Norak esku artean hartzen du koadernoak.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Askok gustatu zait. Liburu bilaka
daiteke.

NORA
(gazteleraz)
Liburu?

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Pantailako emakumeak ez du ideia
arrastorik. Tentel halakoa.

Isilik gelditzen dira biak.

NORA
(gazteleraz)
Ez dut inora alde egingo.

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Nahi baduzu borondatezko onartzea
sinatuko dut zahar-egoitzarako.

NORA
(gazteleraz)
Borondatezko onartzea
psikiatrikorako da.

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Hori ere ez da aukera txarra.

NORA
(gazteleraz)
Sentitzen dut atzo gauez hemen egon
ez izana.

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Ondo nago.

NORA
(gazteleraz)
Deituko diot anbulantziari?

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Mesedez.

Norak mugikorra ateratzen du patrikatik.

BAR. OSPITALEA. EGUNA

Nora Aitite Nikolasen ospitaleko ohearen ondoko aulkian dago eserita. Aitite Nikolas ohean etzanda dago, oxigeno-maskara aldean, zainetan sartutako hodietatik medikamentuak jasoz.

Norak ordenagailu bat dauka esku artean eta bideo-dei bat egiten die PILI (60) eta JAVI (63) gurasoei. Norak pantailara begira hitz egiten du.

NORA
(gazteleraz)
Medikuak dio ez dagoela ondo, baina
nik ez dut txarto ikusten.

PILI
(pantailatik, gazteleraz)
Zer jarri dizute?

NORA
(gazteleraz)
Denetarik. Oxigenoa. Antibiotikoak.
Seruma...

JAVI
(pantailatik, gazteleraz)
Aita, zer moduz zaude?

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Gaztetxo baten pare. Hemendik
ateratzeko gogoekin.

NORA
(gazteleraz)
Ikusten duzue?

JAVI
(pantailatik, gazteleraz)
Joan egin behar gara.

PILI
(pantailatik, gazteleraz)
Besarkada bat Nikolas. Laster gaude
hor.

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Zuen zain izango naiz.

JAVI
(pantailatik gazteleraz)
Agur, aita.

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Gero arte.

Norak pantaila ixten du. Aitite Nikolas ohean eseri egiten da. Norak kuxin bat jartzen dio lepoan.

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Nire heriotza-oharra idatzi nahi
dut.

NORA
(gazteleraz)
Barkatu?

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Herriko aldizkarian argitaratu
dezaten. Zuk ematen badiezu
argituratuko dute, ezta?

NORA
(gazteleraz)
Aitite zu ez zara orain hilko.

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Ba al daukagu beste zereginik?
Hartu boligrafoa eta diktatuko
dizut.

NORA
(gazteleraz)
Ez dakit badakizun, baina
orokorrean, beste pertsona batek
idazten du heriotza-oharra, ez
norberak.

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Nor ari da hiltzen hemen, zu edo
ni?

Norak kuadernoa hartzen du.

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Hasi idazten.

Norak boligrafoa hartzen du.

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Jesuiten barnetegitik irten
zenetik, nahi izan zuen bezala bizi
izan zen. Beti izan zen aske.
Familia ona izan zuen. Bere iloba
ere ona izan zen.

Norak irribarre egiten du idazten duen bitartean.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Heriotzaren orduan, ez da ezertaz damutzen. Askotan erratu zen eta ikasi ere egin zuen. Ez zuen beldurrik izan. Eskerrak ematen dizkio jaiotzen ikusi zuen herriari eta hiltzen ikusiko duen herri honi. Emaztea ikusteko irrikitan, aspalditik zain dauka eta.

Norak dena idazten du. Aititek Nora begiratzen du. Norak aititek diktatutakoa idazten amaitzen du.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Zer iruditzen zaizu? Orain edertu pixkat eta marraztu nire erretratu bat.

NORA

(gazteleraz)

Zerbait gehiago?

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Horrekin nahikoa daukat.

NORA

(gazteleraz)

Nahi izan zuen bezala bizi izan zen. Hamar urte zenituenetik? Ez zaitut sinesten.

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Zuk ere, gauza bera egin beharko zenuke.

NORA

(gazteleraz)

Ez dakit...

AITITE NIKOLAS

(gazteleraz)

Hogei urteko atzerapena daramazu.

NORA

(gazteleraz)

Hartu ezazu atsedena. Medikuak esan du ez nekatzeko.

AITITE NIKOLAS
(gazteleraz)
Lo-kuluxka bat egingo dut.

Aitite Nikolasek begiak izten ditu. Nora marrazten hasten da.

BAR. OSPITALEA. EGUNA

Aitite Nikolas ospitaleko ohean dago etzanda, begiak itxita. Nora dauka aldamenean, aulki batean eserita. Beste aulki batean Meri dago, Markel altzoan hartuta. Elene lurrean dago eserita, esku batekin liburu bat hartzen du eta bestearekin Aitite Nikolasen eskuari oratzen dio.

NORA
Pertsona txarra naiz. Iloba txarra naiz. Nire errua da. Ondo jarriko da, ezta?

MERI
Oso gaizki dago.

MARKEL
Zer da koma?

MERI
Lo sakon-sakon egotea da koma.

Markel jaitsi egiten da Meriren altzotik eta Aitite Nikolasengana hurbiltzen da.

MARKEL
(gazteleraz)
Entzuten dit?

NORA
Seguru baietz.

MARKEL
(gazteleraz)
Herentziarena nola egingo dugu?

Elenek liburua ixten du eta altxa egiten da.

ELENE
Markel, egon isilik, beti ari zara sekretu guztiak aireratzen.

MERI
Ze herentzia?

ELENE
Bat ere ez.

MARKEL
Norarentzako kaxa bat.

NORA
Nik ez dut herentziarik nahi.
Aitite, osatu mesedez.

Norak Aitite Nikolasen burua laztantzen du.

Javi eta Pili sartzen dira ospitaleko gelan. Nora besarkatzen
dute eta Meri eta haurrak agurtzen dituzte.

Pilik Aitite Nikolasen eskua heltzen du. Javi Norarengana
gerturatzen da.

JAVI
Zer moduz zaude, laztana?

NORA
Ondo.

JAVI
Eskerrik asko.

Pilik, burua altxa, eta Nora eta Javi begiratzen ditu.

PILI
Eskerrik asko entzun dut?

Nora eta Javi isilik gelditzen dira.

PILI
Nora, arduragabe bat zara. Lehenago
abisatu behar gintuzun hain larri
zegoela.

NORA
Ez nekien ordea.

PILI
Nikolas gaixoa.

JAVI
Zer esan du medikuak?

Norak ez du ezer esaten.

MERI
Zaila dela hobera egitea.

Javi Aitite Nikolasengana hurbiltzen da.

JAVI
 (gazteleraz)
 Eskerrik asko bizirik
 itxarotearren, aita. Beti izan zara
 gizon prestua.

Javik Aitite Nikolasen burua laztantzen du.

PILI
 Ez agurrik esan. Medikuak hobera
 egin dezakeela esan du.

NORA
 Egon isilik, ama. Bere aita da.

PILI
 A! Eta ni ez naiz inor, ezta?
 Hogeita hamabost urte berarekin
 bizitzen, eta "egon isilik ama".
 Nire familia ere bada.

Negarrez hasten da Pili.

NORA
 Ez da gauza bera.

PILI
 Eta zuk zer dakizu ba? Badakizu
 familia bat osatzea zer den? A, ez!
 Nora independentea delako. Eta
 horoskopoa idazten duelako. Eta
 marrazkitxoak egiten dituelako.

MERI
 Bai, eta gainera aitite zaintzen du
 24 orduz.

MARKEL
 Eta gu ere zaintzen gaitu.

NORA
 Nik ez nuen horrela izaterik nahi.
 Nire lagun onena da.

ELENE
 Ez da Noraren errua.

Javi Pilirengana gerturatzen da eta sorbaldetan jartzen
 dizkio eskuak.

JAVI
 Uste dut urduri samar gaudela
 denak.

NORA
Ni ez nago urduri.

MERI
Atsekabetu egingo duzue aitite.

Isilik gelditzen dira denak. Aitite Nikolas begiratzen dute.
Aititek oin bat mugitzen du.

NORA
Ikusi duzue? Oin bat mugitu du.

MERI
Espasmo bat izango da.

PILI
Seinale bat da.

MERI
Bai, borrokatzeari uzteko esan nahi
dizue.

JAVI
Gizon zintzoa, nire aita.

NORA
Eta kabroi samarra.

PILI
Animo, "suegro".

NORA
Animo, aitite.

Denek begiratzen diote Aitite Nikolasi.

BAR./KAN. AUTOA/KALEA. EGUNA

Nora Dyane 6 auto zahar eta laranja baten barruan dago
eserita. Kopilotuaren tokian Aitite Nikolasen errautsak
dauzka urna batean sartuta, segurtasun-uhala jarrita. Atzeko
partean motxila batzuk dauzka.

Arnasa hartzen du Norak. Izerdia kentzen du eskuetatik.
Giltza sartzen du autoa martxan jartzeko. Atzerako ispilutik
begiratzen du. Meri, Elene eta Markel ikusten ditu
gerturatzen, motxilekin. Autotik ateratzen da Nora.

NORA
Ez. Ez. Ez. Ezta okurritu ere!

Markelek kopilotuaren leihotik begiratzen du.

MARKEL

Zer da hori?

ELENE

Aitite da. Lasai, nik eramango dut.

Elene kopilotuaren aulkian sartzen da, errautsak hartu eta altzoan jartzen ditu.

Nora hirurak geldiarazten saiatzen da. Markel autoaren atzeko partean sartzen da.

MERI

Ez dakizu ezta martxan jartzen, e?

NORA

Bakarrik noa.

MERI

Nork gidatuko du, zuk ala nik?

NORA

Mesedez! Kotxetik kanpora denak!

MERI

Ile-apaindegia itxi dut bi egunetarako. Oporretan joango gara, garai onetan bezala.

NORA

Ez.

MERI

Uste nuen gustatuko zitzaizula ideia. Eta autoa eraman dezaket, zuk ez dakizu gidatzen.

NORA

Gidabaimena badaukat.

Hurrek Meri eta Nora begiratzen dituzte, zer egin jakin gabe.

BAR. KANPIN-DENDA. GAUA

Nora, Meri, Elene eta Markel kanpin-dendaren barruan daude etzanda, estu-estu eginda.

NORA

Errautsak Ezpeletan utziko ditut, amatxiren ondoan, eta beste errauts batzuk kostaldeko leku politetan banatuko ditut.

ELENE

Ideaia ona da, seguru aititeri
gustatuko litzaiokeela.

MERI

Ezpeletara joango zara? Eta Ximun?

ELENE

Nor da Ximun?

MERI

Kontaiozu, Nora.

NORA

Ximun nire lehenengo mutil-laguna
izan zen.

ELENE

Mutilak denak dira tontoak.

MERI

Zure lehenengo mutil-laguna? Ximun
izan zen... Markel, tapatu
belarriak.

Markelek belarriak tapatzen ditu.

MERI

Nazkagarri bat, eta erabateko
astakirten bat!

ELENE

Ez esan berba horiek, ama.

MERI

Ikasten joan zaitezzen zu ere.

Markelek kendu egiten ditu eskuak belarrietatik.

NORA

Baina ez naizenez bera ikustera
joango, ez da ezer gertatzen.
Hilerrira joango naiz eta gero
aurrera jarraituko dut nire
Europako bidean.

MARKEL

Atacamara eta Iranera joango zara?

NORA

Eta toki gehiagotara.

MERI

Haitzean jaiok, haitzera nahi; eta zu beti izan zara oso txoriburua. Hondartzara joango gara bihar, ideiak argitu eta gurekin itzuliko zara etxera.

Norak ez du Meri begiratzen.

MERI

Autoeskolara joan, gidatzen ikasi eta orduan erabakiko duzu zer egin.

NORA

Oso ondo.

MERI

Gainera txatar horrekin ez zara urrun iritsiko.

NORA

Kanpin-denda primerakoa da, baietz? Sarreratxoa dauka zapatilak uzteko, haizebide ona, goretex-a...

MARKEL

Dena dakigu. Zurekin joan ginen denda eroatera.

ELENE

Leihotxotik izarrak ikusten dira.

Kanpin-dendako leihotxotik begiratzen dute.

KAN./BAR. AUTOA. GAUA

Nora kanpin-dendatik gertu aparkatua dagoen kotxera sartzen da. Pilotuaren aulkian esertzen da Nora. Kopilotuaren tokian errautsen urna dauka, segurtasun-uhala jarrita. Arnasa hartzen du Norak. Bi eskuekin heltzen dio bolanteari. Giltza sartu eta bira ematen dio.

NORA

Enbragea lehenengo, freno gero. Martxan jarri.

Norak pausuak egiten ditu banan-banan. Martxan jartzen da autoa, zahar-hotsa egiten du motorrak. Gelditu egiten zaio autoa tupustean. Norak Aitite Nikolasen urna begiratzen du.

NORA

Benga, lagundu aitite.

Norak izerdia kentzen du eskuetatik.

NORA
Zapaldu enbragea. Zapaldu frenoa.
Martxan jarri.

Autoaren motorra entzuten da.

NORA
Orain azeleratu.

Kotxearen motorrak ozen jarraitzen du soinua sortzen, baina ez da lekutik mugitzen.

NORA
Joder. Zer gertatzen da?

Norak esku-frenoa askatzen du eta autoa martxan jartzen da, behaztopaka. Bidaian ateratzen da Nora. Kotxeko argiak pizten ditu Norak. Kanpin-dendaren aldamenetik pasatzen da. Kanpin-dendari begiratu eta bidea jarraitzen du astiro-astiro.

KAN. ERREPIDEA. EGUNSENTIA

Eguna argitzen doa, Norak oso txarto gidatzen du, baina errepide eder batetik aurrera doa.

KAN. BASERRIKO LANDA. EGUNA

Nora autoaren barruan dago inguru eder-eder batean aparkatua. Alde batera mendi bat dauka, eta bestera itsasoa. Baserri bat dago gertu. Pilotuaren lekuan dago Nora eserita, telefono mugikorra eskutan hartuta.

NORA
Akuario. Gaur egun ona da zure
bizitza aldatzen hasteko. Libra.
Benetako lagunek badakite
barkatzen. Virgo. Egin running edo
walking edo climbing, baina mugitu
ipurdia.

Norak entzun egiten du grabatu duena. Berriz ematen dio grabatzeko botoiari.

NORA
Horrela bidaltzen dizuet,
teklaturik gabe nagoelako. Road
tripean nago mugagabe.

Norak mugikorra gordetzen du.

KAN. MENDIA ITSASOKO BISTEKIN. EGUNA

Norak motxila astun-astun bat darama bizkarrean. Aldapa bat dauka parean. Aurreratu egiten du bikote batek. Nora gelditu egiten da eta gora begiratzen du.

Norak astiro igotzen du aldapa, izerdi asko botatzen du. Ura edaten du. Motxila zuhaitz baten atzean ezkututzen du eta bainujantzi bat eta txano bat jantzita bakarrik gelditzen da. Telefono mugikorra eta autoko giltzak eskotean gordetzen ditu.

Tontorrera iristen da Nora. Itsasoko bistak ikusgarriak dira bertatik. Norbait deitu nahi du telefonoz, baina estaldurarik gabe dago. Eseri egiten da baina ez da eroso aurkitzen bainujantziarekin, harria bero dagoelako eta belarrak enbarazu egiten diolako.

Itsasoa begiratzen du, eskuak ipurdi azpian jarrita.

KAN. MENDIA ITSASOKO BISTEKIN. EGUNA

Nora motxila utzi duen lekura bueltatzen da. Ez du motxila aurkitzen. Bila hasten da. Mugikorra hartzen du. Bideo-dei bat egiten du. Pilik erantzuten du.

NORA

Zer moduz zaudete, ama? Baldarra naiz gero, galdu egin dut...

PILI

(mugikorraren pantailan)

Merik deitu digu. Abandonatu egin dituzula.

NORA

Asko haserretu da? Autobus-geltoki bat daukate gertu. Galdetu gabe sartu zitzaizkidan autora.

Norak harri baten atzean begiratzen du eta bertan aurkitzen du motxila, artalde batek inguratua.

PILI

(mugikorreko pantailan)

Zuk jakingo duzu egiten ari zarena normala den.

NORA

Eta hori?

Nora artaldearengana gerturatzen da.

PILI

(mugikorraren pantailan)

Hor zehar alde egin duzu, inorengan
pentsatu gabe.

NORA

Gogoratu nahi dizut negua hasi
zenetik daramazuela Tenerifen. Eta
aititerekini ni egon naizela.

Norak libre duen besoa mugitzen du, artaldea urrun dadin.
Ardiak ez dira tokitik mugitzen. Gelditu egiten da Nora,
bideo-deiari arreta jarritz.

PILI

(mugikorraren pantailan)

Nork lagunduko du Meri txikiekin?
Ez duzu ikusten gogaitua dagoela
ile-apaindegian? Zuk denbora
daukazu. Zer zaude, ardiz
inguratua?

NORA

Ez zara nigatik pozten ala?

PILI

(mugikorraren pantailan)

Ez dakizu gidatzen ere.

NORA

Kilometro batzuk egin ditut.

PILI

(mugikorraren pantailan)

Egin behar dena egin behar da
batzuetan, Nora.

NORA

Eta hau ez da antza egin behar
dudana.

PILI

(mugikorreko pantailan)

Aurpegia erre zaizu.

Pilik telefona esekitzen du. Aurpegia ukitzen du Norak, eta
pentsakor gelditzen da mugikorrari begira. Berriz gordetzen
du mugikorra eskotean. Norak ardiengana korri egiten du eta
mugitu egiten dira ardiak.

KAN. BASERRIKO LANDA. GAUA

Nora jantzita eta motxila aldean duela iristen da. Euria ari du. Auto barruan sartzen da. Hondartzako itzalkin bat ateratzen du, camping gas bat eta lapiko bat. Pasta pixka bat egosten hasten da. Aulki bat atera eta itzalkinaren azpian esertzen da. Campin gasari begira dago. Egositako pastari ura kentzen dio. Ez dauka osagai gehiago. Makarroiak jaten hasten da, zuzenean lapikotik bertatik. MARI FELI (75) igarotzen da Noraren aldamenetik, zarama-poltsa batekin eta euritako batekin.

NORA

Ez zara baserrikoa izango, ezta?

MARI FELI

Bai.

NORA

Baduzu gela librerik gaua igarotzeko?

MARI FELI

Etxe pribatu bat da. Eta hobe alde egiten baduzu.

NORA

Barkatu, landa-turismoa zela uste nuen.

Urrundu egiten da Mari Feli. Bustitzen ari da Nora, itzalkinak ez duelako euri gehiago jasaten. Mari Feli berriz pasatzen da bere ondotik, zarama-poltsarik gabe oraingoan.

NORA

Atseginagoa ere izan zintezkeen.
Pertsona zintzoa naiz.

MARI FELI

Ez dut dudarik egiten. Baina nik alde egingo nuke berdin-berdin.

Joan egiten da Mari Feli. Nora lapikotik makarroiak jaten gelditzen da, euritan bustiz.

BAR. AUTOA. GAUA

Pilotuaren aulkian jartzen da Nora. Autoa martxan jartzen saiatzen da. Ez du lortzen. Motorrak soinu eskasa ateratzen du.

Nora auto barruan dago, lo-zaku baten barruan sartuta. Euria barra-barra ari du. Trumoiak entzuten dira eta autoaren aurka jotzen duten euri-tantek ez diote lorik egiten uzten.

KAN. BASERRIKO LANDA. EGUNA

Nora auto barruan esnatzen da, kopilotuaren lekuan, urna alboan duela. Eguzkiak gogor jotzen du eta izerditan dago. Aurpegia eguzkiak erreta dauka. Luzatu egiten du gorputza. Eguzkitako betaurrekoak janzen ditu. Mugikorra hartzen du. Bere ahotsa grabatzen hasten da.

NORA

Akuario. Ametsak ez dira betetzen,
amesgaizto bihurtu baino. Libra. Ez
pentsa sufritzen ari zarenik,
okerragora joan daiteke eta beti.
Virgo. Kontuz eguzkiarekin,
traidore hutsa da.

Pilotuaren aulkian jartzen da Nora. Autoa martxan jartzen saiatzen da. Ez du lortzen.

KAN. LAIDAKO HONDARTZA. EGUNA

Norak eguzkitako kremaz zuri-zuri dauka aurpegia. Koaderno berri batean marrazten hasten da Nora, toallan etzanda. Norak jendea nola igarotzen den begiratzen du. Norak haur batzuk ikusten ditu korrika. Nora lo gelditzen da. Nora paseatzen ari da itsasertzean. Norak surflari talde bat ikusten du uretan.

Noraren erlojuko alarmak jotzen du. Norak itzali egiten du alarma.

Norak toallan jarraitzen du. JOSEBA (25), surflarietako bat, uretatik ateratzen da. Norarengana hasten da gerturatzen. Norak beste alde batera begiratzen du disimuluan. Josebak Noraren alboan uzten du surf-taula.

JOSEBA

Kaixo!

NORA

Kaixo.

JOSEBA

Zer moduz eguna?

NORA

Ondo, oso entretenitua. Ezagutzen
dugu elkar?

JOSEBA
Orain bai. Joseba naiz.

NORA
Nora.

Joseba itsasoari begira gelditzen da. Nora ere bai. Isilunea deserosoa da.

NORA
Oso ondo aritzen zara surfean.

JOSEBA
Eskerrik asko. Zu oso ondo aritzen zara pasieran. Eta oso ondo botatzen duzu siesta.

NORA
Niri begira egon zara?

JOSEBA
Pixka bat.

NORA
Ba hori ez da egiten.

JOSEBA
Barkatu. Nahi duzu bakarrik uztea?

Norak ez du ezer esaten.

Joseba altxa egiten da eta Aitite Nikolasen errautsen urna ikusten du, toallak erdi estalia.

JOSEBA
Hori ez da izango nik uste dudana.

NORA
Zer uste duzu dela?

JOSEBA
Hildako bat.

NORA
Ba hori da, bai.

Josebak taula hartu eta alde egiten du.

KAN. ARRANTZA-PORTUA. EGUNA

Nora arrantzaleen ontzitzoen artean ari da pasieran. ANDER (34) ikusten du arrantzarako erremintak konpontzen ontzitzo baten aldamenean.

Bere altuerara jaitsi eta alboan esertzen da Nora. Mutilak ez dio jaramonik egiten. Mutilari begira gelditzen da Nora.

NORA

Kaixo!

Mutilak ez dio ezer erantzuten. Dena ontzian sartu eta ontzia uretara mugitzen hasten da.

NORA

Joan naiteke zurekin?

Mutilak ontziari bultzaka jarraitzen du. Ez du Nora begiratzen.

NORA

Barkatu. Joan naiteke arrantzan zurekin?

ANDER

Ez.

NORA

Eta ordaintzen badizut? Zenbat nahi duzu? Emango didazu osteratxo bat hogeituroren truke?

ANDER

Berrogeita hamarren truke bai.

NORA

Hogeita hamar.

ANDER

Bale. Ea, igo.

Norak dirua ateratzen du diru-zorrotik. Itsasontzitzora hurbiltzen da. Billeteak ematen dizkio Anderri.

NORA

Ezin zara gehiago gerturatu? Busti egingo naiz.

ANDER

Bazatoz ala ez?

Nora uretan sartzen da eta baldar igotzen da itsasontzira. Anderrek motorra pizten du eta abiatu egiten dira. Egun ederra da eta itsasoa bare dago.

KAN. ITSASONTZIA. EGUNA

Nora itsasontziaren alde batean dago, eta bestean Ander, arrantzan.

NORA
Eta zer ari gara arrantzatzen?

ANDER
Oraingoz ezer ez.

NORA
Eta zer arrantzatu nahi dugu?

ANDER
Txipiroiak.

NORA
Emango didazu baten bat gero?

ANDER
Egon isilik, zaratarekin ez dira gerturatzen eta.

Anderrek motorra gelditzen du eta arrantzan kontzentratzen da. Norak zeruertza begiratzen du.

KAN. ITSASONTZIA. EGUNA

Nora koadernoan marrazten ari da. Ander kontzentratua dago arrantzan. Nora ahapeka hasten da berbaz.

NORA
Bidaian nabil, gauzak idatzi eta ilustrazioak egiten ditut, gero nazioarteko aldizkarietara saltzeko. Auto vintage batean gurutzatuko dut Europa, Catherine Domainen estilora. Badakizu nor den?

Anderrek ez dio ezer esaten.

NORA
Entretenigarria da arrantzatzea.

Mutilak ez dio ezer erantzuten.

NORA
Itsasoa txikiagoa zela uste nuen.

Nora Anderri begira gelditzen da.

NORA

Ez zaizu interesatzen, ez?

ANDER

Txipiroiak interesatzen zaizkit.
Eta lupiak. Eta atunak.

NORA

Zenbat denboran itxaron beharko
dugu?

Anderrek ez dio erantzuten. Norak itsasoa begiratzen du.
Krema gehiago botatzen du aurpegian.

NORA

Baina naiteke?

ANDER

Bai. Baina urrundu pixka bat,
bestela txipiroiak izutuko dituzu
eta.

Nora Anderri begira gelditzen da. Itsasoa begiratzen du
berriz. Ez da inor ikusten inguruan. Norak jantzia kentzen du
eta bainujantzian gelditzen da. Koaderno motxilan sartu eta
uretara salto egiten du. Urrundu egiten da igerian.

KAN. ITSASOA. EGUNA

Norak bainuaz gozatzen du. Atzeraka egiten du igeri. Urpean
egiten du igeri. Hildakoarena egiten du. Barre egiten du.
Eguzkiak jotzen du eta gustura egoten da.

Igerian zerbait gehiago ibili eta burua ateratzen du
uretatik. Ontziaren bila hasten da. Ez du ontzia ikusten.
Oihuka hasten da.

NORA

Eiiiiiii!!! Hemen nago!

Norak ez du ontzia ikusten. Bere inguruan bira oso bat ematen
du, baina ez du ikusten.

NORA

Lagundu!!!

Norak urrunean ikusten du itsasontzia.

NORA

Hemen nago!

Nora itsasontzirantz doa igerian, baina ez du aurreratzen.
Oihu egiten du Norak.

NORA
Eiiiiiii!!! Txipiron!!! Ez utzi
hemen.

Norak igerian jarraitzen du, aurreratu gabe.

Burua ateratzen du eta ontzia gerturatzen ikusten du. Norak
besoak altxatzen ditu, Anderrek non dagoen ikus dezan.

Gerturatu egiten da Ander. Nora ontzira igotzen da, ile
guztiak aurpegian, arnasestuka.

NORA
Ia-ia ito naiz.

ANDER
Bat baino gehiago ito da hemen, ur-
lasterrengatik.

NORA
Eskerrik asko abisatzeagatik.

ANDER
Mundu guztiak daki.

NORA
Itzul gaitezke?

ANDER
Ez. Oraindik ez.

Nora lehortu egiten da toallarekin.

NORA
Eta gehiago ordaintzen badizut?
Lehen baino gehiago.

ANDER
Ez.

NORA
Mesedez.

ANDER
Ezetz esan dut.

NORA
Berrogeita hamar euro.

Anderrek harrituta begiratzen du Nora.

ANDER
Konforme, berrogeita hamar euroren
truke txipiroiak ere zuretzat.

NORA
Zenbat hartu dituzu?

ANDER
Bi.

NORA
Arratsalde oso bat bi txipiroi
hartzeko?

Norak berrogeita hamar euroko billetea ematen dio Anderri.

KAN. BASERRIKO LANDA. EGUNA

Nora autorantz doa oinez, txipiroiak poltsa batean sartuta.
Autoak leiho bat dauka apurtua. Noraren gauzak autoaren
inguruan daude sakabanatuak, lupetzez beterik.

NORA
Kaka zaharra.

Nora korrika hasten da autorantz. Auto barruan sartzen da
Nora. Zoro moduan hasten da bila. Kopilotuaren aulkiaren
azpian begiratzen du. Ez du ezer aurkitzen. Mari Feli
inguratzen da.

MARI FELI
Ondo zaude?

NORA
Kaxa falta zait.

Mari Felik autoaren inguruan bilatzen du. Kaxa bat aurkitzen
du eta Norari erakusten dio. Norak Mari Feli begiratzen du.
Negarrez hasten da Nora. Autotik ateratzen da Nora.

NORA
Ez zinen zu izango, ezta?

MARI FELI
Hori ere entzun behar!

Mari Feli bere baserrirantz hasten da urruntzen. Nora bere
atzetik doa korrika. Besotik eusten dio.

NORA
Ez joan. Bi txipiroi dauzkat.

Bira egiten du Mari Felik.

KAN. BASERRIKO LANDA. GAUA

Autoak plastiko zati bat dauka jarrita leihoan, eta Noraren arropak jasota daude.

Autoaren atzeko aldean Mari Felik txipiroiak garbitzen ditu mahai tolesgarri batean, eta ardo-botila bat irekitzen ari da Nora.

Urna eta txanpon batzuk mahai gainean daude. Norak plastikozko bi edalontzitan zerbitzatzen du ardoa.

NORA

Munduko bidaia kaskarrenagatik,
topa! Penagarria naiz.

Norak edalontzia altxatzen du, eta hala egiten du baita Mari Felik. Topa egiten dute.

MARI FELI

Urrea dira txipiroi hauek.

NORA

Urrea balira ordaindu ditut, bai.

Norak mahaiko txanponak begiratzen ditu.

NORA

Hamasei euro eta hogeita hamabost zentimo.

Norak urna begiratzen du. Gero Mari Feli begiratzen du.

NORA

Zuk uste barkatuko didala?

MARI FELI

Uste dut egun batzuk beharko dituela gertatutakoa barneratzeko.

Norak edan egiten du edalontzian daukan ardoa eta ardo gehiago zerbitzatzen du berriz.

NORA

Nezeserra ere eramán dute,
hortzetako eskuilarekin.

Mari Felik sutara botatzen ditu txipiroiak camping gaseko zartaginean. Norak autoa begiratzen du.

NORA

Eskerrak ez den martxan jartzen,
bestela hori ere eramango zuketen.

MARI FELI
Salaketa jarriko duzu?

NORA
Bidaia bat baino ez nuen egin nahi.

MARI FELI
Nik uste banaizela traste hori
martxan jartzeko gai.

NORA
Diru gabe nago baina.

MARI FELI
Hamasei euro dituzu hasteko.
Familiako norbait deitu dezakezu
bestela.

Norak ezetz esaten du buruarekin.

MARI FELI
Aurrezkirik?

NORA
Nire soldata eskasa hogei egun
barru sartuko didate kontuan.

Mari Felik txipiroiak zerbitzatzen ditu. Norak txipiroia
zatitu eta ahoan sartzen du pusketa bat. Gustura hartzen dio
zaporea.

NORA
Ez nuen sekula pentsatuko hain
gauza gozoa gerta zitekeenik hain
egun petranean.

Mari Felik pusketa bat dastatzen du.

MARI FELI
"De puturru de fua".

NORA
Eskerrak aititek ez zuen asko
aurreztu. Amama zara?

MARI FELI
Ez dakit. Urte asko da ez dudala
alaba ikusten. Galdetu izan diot
inoiz nire buruari.

NORA
Gustatuko litzaizuke?

MARI FELI
Baietz uste dut.

NORA
Sekulakoa da iloba izatea.

Jaten jarraitzen dute.

BAR. AUTOA. EGUNA

Norak autoa gidatzen du. Plastikoak zarata asko egiten du haizearekin eta ez da atsegina gidatzeko.

BAR. FARMAZIA. EGUNA

Nora farmaziako mostradorean dago. Mota desberdinetako hortz eskuilak ditu mostradorean. Hortz eskuil guztiak paketetan datoz, ez dago hortz eskuil bakarra daukan paketerik. Salmahaiaren beste aldean, FARMAZEUTIKOAK (35) adi entzuten du.

NORA
Hauek bakarrik dituzue?

FARMAZEUTIKOA
Bai.

NORA
Bat baino ez dut erosi nahi.
Bakarra erosi dezaket?

FARMAZEUTIKOA
Paketea erosi behar duzu.

NORA
Baina, bakarrik nago eta hiru euro eta laurogeita hamabost balio du.

FARMAZEUTIKOA
Ezin dizut bakarra saldu.

NORA
Ez al daukazue, bidaia hortz eskuilarik?

Farmazeutikoa desagertu egiten da eta boltsatxo batekin bueltatzen da.

FARMAZEUTIKOA

Boltsatxo hau daukagu, bidaiatzeko pentsatua dagoena, desodorante ekologikoa, hortz pasta txikia, 100 ml baino gutxiagokoa, hegazkinean eramateko. Zortzi euro eta hogeita bost zentimo.

NORA

Adarra jotzen ari zara, ezta?

Farmazeutikoak ez daki zer esan.

BAR. TABERNA. EGUNA

Nora tabernako aulki batean eserita dago. Hormako entxufea aprobetxatzen du sakelekoa kargatzeko. Lau hortz eskuildun paketea du eskuartean. Paketea esku batetik bestera mugitzen du. Telefono dei bat egiten du.

NORA

Aita? Bai, ni naiz. Oso ondo. Ez, ez da ezer. Nahi dudalako deitzen dizut. Ez dut ezer behar. Eguraldi ona dago. Bai. Autoarekin ondo. Ez, ez dut inor harrapatu autoarekin. Noski baietz. Oso ondo nago. Bai, pasaidazu.

ZERBITZARIA (50) Norarengana hurbiltzen da. Nora begiratzen du. Norak zerbitzaria begiratzen du.

NORA

Baso bete ur mesedez.

Zerbitzaria badoa.

NORA

Bai ama, ondo nago. Frantzian. Ez nuen aurpegia erre. Pantailaren kolorea izango zen. Ez, ez dut berarekin hitz egin. Ondo nago. Ez arduratu. Zuek? Pozten naiz. Bai, agur.

Zerbitzaria ur basoarekin bueltatzen da.

NORA

Eskerrik asko, bihotzez.

ZERBITZARIA

Egun ederra izan dezazula.

NORA

Zuk ere bai.

Zerbitzaria badoa. Norak ura edaten du. Hatzamarrak basuan sartzen ditu eta aurpegia freskatzen du.

B/K. AUTOA/ITSASLABARRA. EGUNA

Nora autoan eserita dago. Autoa aparkatuta dago. Ikuspegia zoragarria da. Norak esku artean dauka telefono mugikorra, zenbaki bat markatzen du.

NORA

(ingelesez)

Kaixo, Julie. Barkatu molestutzen bazaitut. Bai. Badakit. Marrazkiena naiz. Bai. Libre nago mugitzeko, bai. Eskerrik asko. Badakit zaila dela, baina lan egiteko prest nagoela esan nahi nizuen.

Norak telefona esekitzen du.

Nora autotik irtetzen da. Norak paisaia begiratzen du. Norak bere ahotsa grabatzen du.

NORA

Zodiakoaren zeinu guztientzat.
Eguraldi txarrari, aurpegi ona.
Arriskatu gabe, ez dago irabazterik.

Norak mezua bidaltzen du.

KAN. HONDARTZAKO PASEALEKUA. HENDAIA. EGUNA

Nora pasieran ari da pasealekuan. Ulysses izeneko bidaien liburu-denda baten inguruan ari da bueltaka. Kanpoan dago banku batean eserita, zelatan. Jendea ikusten du sartu-irtenean. Kanpoko partean mostradore bat dago liburu eta postalekin. Norak gutun-azal zuri bat ateratzen du poltsatik; Hendaiako hondartzaren marrazki eder bat dauka barruan, mezu batekin batera. Alde guztietara begiratzen du. Ez dago inor dendako kanpoko partean. Korrika gerturatzen da Nora. Beste postalen artean uzten du bere marrazkia.

Nora bankura itzultzen da eta gerturatzen den jendea zelatatzen du. Turista batzuk heltzen dira. Postalei begira jartzen dira. Noraren postala hartzen dute esku artean. Nora turistengana hurbiltzen da.

NORA
(ingelesez)
Gustuko duzue?

1 TURISTA
(ingelesez)
Bai.

NORA
(ingelesez)
Artista gazte batena da. Hemen
ingurukoa.

2 TURISTA
(ingelesez)
Asko gustatzen zaigu. Badauzka
gehiago?

NORA
(ingelesez)
Bere obrak oso eksklusiboak dira.
Postal hau baino ez daukagu momentu
hauetan.

1 TURISTA
(ingelesez)
Zenbat da?

NORA
(ingelesez)
25 euro.

2 TURISTA
(ingelesez)
Oso garestia da. Eskerrik asko.

NORA
(ingelesez)
Zuentzako, 20 euro.

1 TURISTA
(ingelesez)
Mila esker, baina ez.

NORA
(ingelesez)
Tira, mila esker zuei!

Norak bira ematen du alde egiteko eta ile zuriko emakume bat
aurkitzen du parean.

NORA
¡Catherine!

Catherinek ezer ulertu gabe begiratzen du Nora.

KAN. HONDARTZAKO TXOSNA. GAUA

Jai bat ospatzen ari dira hondartzako txosna batean. Musika talde bat ari da zuzenean jotzen. Nora barrara hurbiltzen da.

NORA
Zerbeza katxi bat.

Zerbitzaria katxia ateratzera doa. Zerbeza bete edalontzirekin bueltatzen da.

NORA
Zenbat da?

ZERBITZARIA
8 euro.

Norak bere poltsan begiratzen du. Diru-zorroa ateratzen du. Aldamenean beste pertsona bat dago zerbait eskatzen. Norak barraren gainean dirua uzteko keinua egiten du. Zerbitzariari irribarre egin eta ordaindu gabe alde egiten du.

JOSEBA
Oso mugimendu ona.

Aldamenean Joseba dagoela ohartzen da Nora.

NORA
E? Zer esan nahi duzu?

JOSEBA
Irribarrea bota eta ordaindu gabe alde egin. Gonbidatuko?

Alde egiten du Norak. Paretaren kontra dago Nora. Talde bat ari da musika jotzen. Norak musikaz gozatzen du. Joseba Norarengana hurbiltzen da. Topa egiten du Norarekin.

JOSEBA
Zu baino zortzi euro pobreago naiz orain.

NORA
Ez dut uste.

Norak edan egiten du. Abestia ederra da, dantza egiteko modukoa. Josebak dantza egitera gonbidatzen du Nora.

JOSEBA
Egin nahi duzu dantzan?

NORA
Nik ez dut dantzan egiten.

Josebak gaizki egiten du dantzan Noraren aurrean. Norak irribarre egiten du.

JOSEBA
Ez utzi bakarrik barregarri
agertzen.

Josebak eskua luzatzen dio, antzerki plantak eginez. Norak berarekin dantzatzen du. Kimika hautematen da bien artean.

KAN. HONDARTZAKO APARKALEKUA. GAUA

Nora eta Joseba banku batean daude eserita, itsasoari begira. Txosnako musika entzuten da.

NORA
Urrun. Ez dakit autoa Asiaraino
iritsiko litzatekeen.

JOSEBA
Ez duzu bidaiari itxura handirik
egia esan.

NORA
Ba oso ondo moldatzen naiz.
Batzuentzako eta besteentzako
idazten dut. Internazionalki ez
pentsa.

Zerua begiratzen dute, izarrez bete-betea.

NORA
Onegia ematen duzu.

JOSEBA
Nahiago duzu astakirten bat izatea.

NORA
Ohituago nago, bai.

Joseba pentsakor gelditzen da.

JOSEBA
Zu bezalako neska asko ikusi dut,
zientoka. Denak nire esanetara.

NORA
Zuk ikusi nauzu surfean?

JOSEBA
Izan dut zorte txar hori, bai.

NORA
Baina ez dakizu irakurtzen.
Dislexikoa zara.

JOSEBA
Joder. Eta zuk nola dakizu hori?

NORA
Ez esan! Ez nekien, nola jakingo
nuen ba.

JOSEBA
Txantxa da. Zurekin oheratu nahi
dut, hori baino ez.

Nora altxa egiten da.

NORA
Nirekin ligatzen ari zara?

JOSEBA
Jakina. Horretan ari nintzen.

Joseba Norarengana gerturatzen da. Nora aldendu egiten da
pixka bat Josebarengandik.

NORA
Urduri jartzen ari naiz.

JOSEBA
Hori ona da.

NORA
Ez daukat praktika handirik.

JOSEBA
Ba praktika dezagun.

NORA
Traumatizatua nago.

JOSEBA
Nola du izena zure traumak?

NORA
Ximun.

JOSEBA
Saiatuko gara trauma hori batera
gainditzen?

Zerbait gehiago aldentzen da Nora. Berriz gerturatzen da
Joseba.

JOSEBA
Nahi duzu ala ez?

NORA
Ai, mesedez. Izan zaitezke
erromantikoa?

Barre egiten du Josebak.

JOSEBA
Laztana. Koilaratxoa egin nahi dut
zurekin ohean.

Barrea ateratzen zaio Norari.

JOSEBA
Maitasuna egin nahi dizut,
misioneroaren posturan. Goxo-goxo.

NORA
Pasatzen ari zara orain.

Belauniko jartzen da Joseba.

JOSEBA
Nahi duzu nirekin txortan egin?

Norak pentsatu egiten du.

NORA
Bai, nahi dut.

Elkar musu ematen dute Nora eta Josebak.

BAR. HONDARTZAKO APARKALEKUA/AUTOA. EGUNA

Nora lo dago Dyane zaharraren atzeko partean. Eguzkia sartzen da auto barruan. Izerditan dago. Norak begi bat irekitzen du. Joseba begiratzen du. Joseba Noraren koadernoan ari da kuxkuxean. Norak ondo jartzen du kamiseta. Noraren telefonoak jotzen du. Norak telefonoa erantzuten du. Norak koadernoak kentzen dio Josebari.

NORA
Bai?

Nora ondo esertzen da eta gorputza luzatzen du.

NORA
(ingelesez)
Bai. Kaixo, Julie. Bai,
aldizkaritik. Jakina. Hendaian. Ez
dizut ulertzen. Produkzioko lana.

Taxilari bat bezala? Ondo. Barkatu?
Apuntatuko dut.

Norak ohar batzuk idazten ditu eskuan. Norak telefonoa
eskegitzen du.

NORA
Ikusten didazu taxilari itxurarik?

JOSEBA
Bueno.

Josebak Noraren koaderno hartzen du berriro.

JOSEBA
Hau da idazten duzuna? Hitz bat
bera ere ez dago eta.

Norak ez du ezer esaten.

JOSEBA
Inoiz ikusi ditudan bidaiaria-gida
guztiak baino hobea da hau.

NORA
Lausengu egiten ari zara
atzokoagatik.

JOSEBA
Ez, lausengu egiten dizut orain
gertatuko denagatik.

Josebak musu ematen dio Norari.

NORA
Gose naiz, eta gosez ezin dut.

JOSEBA
Gosaltzera gonbidatuko zaitut
orduan.

Josebak Nora besarkatzen du.

KAN. ERREPIDEA. EGUNA

Nora errepide ertzean geratzen da. AMY (30) batzen du bertan.
Neskaren motxilak Dyane zaharraren maletategian sartzen ditu,
bere motxilekin batera.

NORA
(ingelesez)
Pozten naiz zu ezagutzeaz. Nora da
nire izena.

AMY
(ingelesez)
Mila esker bizitza salbatzearren.
Amy naiz eta guztiz galdua nago.

Amyk Noraren eskua estutzen du.

NORA
(ingelesez)
Ez da ezerगतik. Gogoz laguntzen
dut.

Autoan sartzen dira biak. Gidatzen hasten da Nora. Amyk paper
bat luzatzen dio.

AMY
(ingelesez)
Hau da aireportua, irteera-atea,
ordutegia... Gertu dagoela esan
didate.

NORA
(ingelesez)
Leihoarena ez da arazoa, lasai,
haize gozo antzeko bat sartzen da.

Irribarre egiten du Amyk.

AMY
(ingelesez)
Zurekin baieztatzeko esan didate.
Hondarribiko aireportua da.

NORA
(ingelesez)
Baieztatua.

Amy erlaxatu egiten da aulkian.

AMY
(ingelesez)
Gustatzen zait zure autoa.
Artikuluari sartuko dut akaso.

Amyk koaderno bat ateratzen du poltsatik. Idazten hasten da.

NORA
(ingelesez)
Ez pentsa, ez naiz oso
interesgarria.

AMY

(ingelesez)

Seguru baietz. Kontaidazu, nola
bukatu duzu taxilari lanetan? Hau
da zure ogibidea?

NORA

(ingelesez)

Beti izan da nire pasioa. Edozein
ibilgailu mota gida dezaket,
kamioiak ere bai.

AMY

(ingelesez)

Oso interesgarria. Euskal
kamioilaria.

Amyk bere koadernoan idazten du.

AMY

(ingelesez)

Asko gustatu zait Euskal Herria.
Oso autentikoak zarete, eta
zintzoak. Unknwon aldizkarirako
lehen artikulua idatzi dut inguru
hauei buruz, ondo geldituko dela
uste dut. Baina orain dator onena.

Norak entzun egiten du.

AMY

(ingelesez)

Iranera noa. Oso ilusionatua nago.
Beste kultura bat, beste hizkuntza
bat, munduaren beste ikuskera bat.

NORA

(ingelesez)

Ze interesgarria!

AMY

(ingelesez)

Oso.

NORA

(ingelesez)

Niri Atacamako desertura joatea
gustatuko litzaidake.

AMY

(ingelesez)

Dena bere bidean badoa, hara ere
joango naizela uste dut. Ea zortea
dudan.

NORA
(ingelesez)
Heltzeko zenbat denbora beharko
genuela esan dizute?

AMY
(ingelesez)
Bidaia laburra zela esan didate,
baina ez iraupena.

NORA
(ingelesez)
Auto honekin luzeagoa izango dela
pentsatzen dut.

Norak begiak autopistan jarrita segitzen du. Amyk leihotik
begiratzen du lasai.

KAN. GASOLINDEGIA. EGUNA

Norak gasolindegi batean gelditzen du autoa. Autotik
ateratzen da Amy. Komunera doa. Norak mahuka jartzen du autoa
gasolinaz betetzeko. Depositua betetzen hasten da. Norak alde
guztietara begiratzen du. Komunetik ateratzen da Amy. Noraren
ondoan gelditzen da, gorputza luzatzen.

AMY
(ingelesez)
Auto hain zaharretan bidaiatzea
txarra da artikulazioentzako. Eta
daukagun aireztatzearekin gainera.

NORA
(ingelesez)
Aire giroturik ez da behar horrela.

Norak lepo betetzen du depositua. Amyk argazki-kamara
ateratzen du autotik eta argazki bat ateratzen die Nora eta
autoari. Gasolindegiko langile bat ateratzen da. Beste bezero
bat laguntzen ari da.

NORA
(ingelesez)
Amy, goazen.

AMY
(ingelesez)
Ez zara ordaintzera sartu behar?

NORA
(ingelesez)
Wifi bidez ordaindu dut.

AMY
(ingelesez)
Hara, ze modernoa!

Auto barruan sartzen da Amy. Auto barruan sartzen da Nora. Langilea biei begira gelditzen da. Norak autoa martxan jarri eta alde egiten du. Langilea autoaren atzetik ateratzen da korrika. Alde egiten dute. Amy gertatutakoaz jabetzen da.

AMY
(ingelesez)
Badirudi wifia ez zebilela guztiz ondo.

Norak irribarre egiten du.

KAN. BILBOKO AIREPORTUA. EGUNA

Norak aireportuaren parean gelditzen du autoa. Amyk leihotik begiratzen du.

AMY
(ingelesez)
Mila esker. Uste baino luzeagoa izan da.

NORA
(ingelesez)
Bai ba. Ahal duena egiten du autoak.

Autotik jaisten da. Amyk seinaleei begiratzen die. Norak Amyren motxilak ateratzen ditu.

AMY
(ingelesez)
Baina hor Bilbo jartzen du. Nahastua nago. Ze aireportutan gaude?

NORA
(ingelesez)
Bilbon.

AMY
(ingelesez)
Ez. Ez. Ezin du izan. Begira paperean zer jartzen duen. Nire hegaldia Hondarribitik ateratzen da.

NORA
(ingelesez)
Barkatu, baina joan egin behar dut.

Auto barruan sartzen da berriz Nora. Autoa martxan jartzen du.

AMY
(ingelesez)
Lotura guztiak galduko ditut. Eta ez daukat telefonorik.

Norak Bilboko aireportuan uzten du Amy, bere maletekin.

KAN. AMOREBIETA-ETXANOKO KALEA. GAUA

Nora auto barruan dago Amorebieta-Etxanoko kale batean. Telefonoz deitzen du.

NORA
Ni naiz. Badakit haserre zaudela.
Zure etxe azpian nago. Bost minutu baino ez. Ez dut hemendik alde egingo.

Pareko eraikin batean leihora ateratzen da Meri. Noraren autoa ikusten du. Handik gutxira ataritik ateratzen da Meri. Autoan sartu eta kopilotuaren lekuan esertzen da.

MERI
Zer ari zara hemen? Ez zindoazen munduari bira ematera ala?

NORA
Bilbora etorri behar izan dut laneko gauza bat dela eta, eta gertu nengoenez...

MERI
Orduan, bueltatu zara ja?

NORA
Ez.

MERI
Ederra kiratsa daukazuna! Ilea oso zikin daukazu.

NORA
Barkatuko didazu?

MERI
Ez.

Nora isilik geratzen da.

MERI

Ez didazu Elene eta Markelengatik galdetu behar? Gaixo egon dira biak.

NORA

Hobeto daude?

MERI

Zurekin oporretan joateko itxi nuen ile-apaindegia. Eta gero beste bi egunez itxi behar izan nuen haurrak zaintzeko. Bezeroak galdu ditut.

NORA

Sentitzen dut.

Merik urna ikusten du.

MERI

Barreiatu dituzu errautsak?

NORA

Ez.

MERI

Ondo pasatzen ari zara?

NORA

Ez da hain erraza.

Isilik gelditzen da.

MERI

Ez dakit zer nahi duzun esatea.

NORA

Ba zerbait.

MERI

Ez daukat zer esan.

Merik autoko atea irekitzen du.

NORA

Esan Elene eta Markeli beraien falta sumatzen dudala.

Merik atea itxi eta alde egiten du. Norak automobila martxan jartzen du.

BAR. AUTOA. GAUA

Norak autopistan barrena gidatzen du. Kafetegia daukan errepideko gasolindegi batean gelditzen da. Kafetegiaren ondoan, bainuak daude.

KAN. GASOLINDEGIA. GAUA

Nora autotik irtetzen da eta bainuan sartzen da.

BAR. GASOLINDEGIKO BAINUA. GAUA

Norak burua sartzen du grifoaren azpian. Oso grifo txikia da. Noraren burua ez da ia kabitzen. Libre daukan eskuarekin ilea garbitzen saiatzen da. Botoia sakatzen du eta ura irtetzen hasten da. Oso zaila da ilea garbitzea.

Kafetegiko ZERBITZARI EMAKUMEA (40) komunean sartzen da. Nora begiratzen du. Norak burua grifo azpitik ateratzen du eta tente jartzen da. Urak dario iletik.

ZERBITZARI EMAKUMEA

Benetan?

NORA

Ez da pentsatzen duzuna.

ZERBITZARI EMAKUMEA

Ez zeunden ilea garbitzen.

NORA

Bai eta sentitzen dut. Ba al dago beste aukerarik ilea garbitzeko? Egun gehiegi daramatzat ilea garbitu gabe.

ZERBITZARI EMAKUMEA

Ez daukagu dutxarik.

NORA

Langileentzat ere ez?

ZERBITZARI EMAKUMEA

Garbi gatoz etxetik.

NORA

Sentitzen dut. Banoa.

Nora zerbitzariaren ondotik pasatzen da ura burutik dariola. Zerbitzariak Nora begiratzen du.

KAN. KAFETEGIA. GAUA

Nora barruko arropan dago kalean. Zerbitzariak autoak garbitzeko mahuka bat eusten du esku artean.

ZERBITZARIA

Prest zaude?

NORA

Zein puntutaraino egongo da izoztua?

ZERBITZARIA

Asko, esango nuke.

NORA

Ez nago prest orduan.

ZERBITZARIA

Tira, ez daukat gau osoa eta.

Norak begiak ixten ditu.

NORA

Eman ba!

Zerbitzariak mahuka irekitzen du. Nora bustitzen du. Norak oihu egiten du inpresioaren inpresioz. Xaboa botatzen du ilean.

NORA

Pikutara dena!

Norak barruko arropa kentzen du.

NORA

Ez zara lesbiana izango, ezta?

ZERBITZARIA

Ba bai. Eta zu ez zara heterosexuala izango, ezta?

NORA

Bai.

Barre egiten du zerbitzariak. Zerbitzariak Norari ura botatzen jarraitzen du.

BAR. KAFETEGIA. EGUNA

Jantzita dago Nora, ilea bustita. Ogitarteko bat jaten ari da. Bezero gehiago dago kafetegian.

Ogitartekoa bukatzen ari da. Zerbitzaria libre gelditzen da eta Norarengana gerturatzen da.

NORA

Mila esker dutxagatik. Zerbait gogorra behar nuen.

ZERBITZARIA

Ez da gaizki egon.

NORA

Haserre nengoen.

ZERBITZARIA

Ez da oso arrunta izan konketarena.

NORA

Eskatu diozu inoiz barkamenik inori eta ez dizute barkatu?

ZERBITZARIA

Terapia behar duzu?

NORA

Psikoanalista bat.

ZERBITZARIA

Lagundu zaitzaket. Eskatu dut barkamena eta ez didate barkatu.

NORA

Eta?

ZERBITZARIA

Eta zer?

NORA

Zer gertatzen da gero?

ZERBITZARIA

Ezer ez. Berdin jarraitzen duzu.

Norak koadernoak zabaltzen du eta marrazten hasten da.

ZERBITZARIA

Ondo pasatu dut.

NORA

Zure gustukoa naiz orduan?

ZERBITZARIA

Harroa zara!

NORA

Gauza berriak probatzen ari naiz.
Harroa izatea bat da eta pertsona
txarra izatea ere bai.

Zerbitzariak barre egiten du. Norak marrazki batzuk ateratzen
ditu koadernotik.

NORA

Oraingoz, horrela ordaindu behar
dizut. Bueltatuko naiz kontuak
kitatzera.

Zerbitzariak marrazkiak begiratzen ditu.

ZERBITZARIA

Hau dena zer izan da, ez
ordaintzeko konplot bat? Beste
ordainketa mota bat hobeto
zegokeen.

NORA

Sexuala, esan nahi duzu?

Barre egiten du zerbitzariak.

ZERBITZARIA

Ez zara niri gustatzen zaizkidan
gisakoa.

Nora altxa egiten da.

NORA

Itzuliko naiz ordaintzera,
diruarekin.

Zerbitzariak eskuarekin egiten dio agur. Kafetegitik
ateratzen da Nora.

KAN. KAFETEGIA. EGUNA

Norak mugikorra hartu eta bere ahotsa grabatzen du.

NORA

Sagitario. Bi aukera badauzkazu,
bat zuria eta bestea beltza, ez
aukeratu grisa. Virgo. Bukatu
hasitakoa. Tauro. Funtsezkoa oso
funtsezkoa da, eta gainontzekoak ez
du axola.

Norak mugikorra gordetzen du. Auto barruan sartzen da.

KAN. AUTOA. EGUNA

Norak autopistan barrena gidatzen du autoa.

KAN. EZPELETA. EGUNA

Nora Ezpeletara iristen da. Ibilian doa. Hilerrira heltzen da.

KAN. EZPELETAKO HILERRIA. EGUNA

Norak Aitite Nikolasen errautsen urna dauka eskuetan. Hilobi batera hurbiltzen da. Makurtu egiten da Nora. Hilobi gaineko argazkia kleenex batekin garbitzen du. Emakume eder baten irudia da. Urna ireki eta errauts-eskukada bat hartzen du. Hilobiaren inguruko belarrean sakabanatzen ditu errautsak. Hilobira begira gelditzen da.

GIZON BAT (45) iristen da atzetik, udaleko langileen arropa urdinak daramatza. Norarengana gerturatzen da. Sorbalda ukitzen dio. Sustatu egiten da Nora.

GIZONA

Badakizu ilegalak dela errautsak
nahi lekuan sakabanatzea?

Norak ez du ezer esaten.

GIZONA

Hori zer da, urna bat?

Norak gogor eusten du urna.

NORA

Ez. Belarrarentzako ongarria da.

Nora, altxa, eta urrundu egiten da aititeren urnarekin.

KAN. EZPELETA. EGUNA

Norak atalondo bat zelatatzen du. Distantzia apur batera esertzen da eta bertan itxaroten du. Denbora tarte bat iragan ondoren XIMUN (30) ikusten du ataritik ateratzen. Ximunen atzetik doa, bera ohartu gabe.

Ximun denda batean sartzen da, lanera. Mahai-zapiak eta ezpainsapiak saltzen dira dendan. Nora dendaren parean dagoen kafetegi baten terrazan esertzen da. Ximun zelatatzen du bertatik.

KAN. EZPELETAKO KAFETEGIA. EGUNA

Nora marrazten ari da mahai batean. Ximunen denda zelatatzen du. HEGOA (8) esertzen da bere ondoan.

HEGOA
Erakutsiko dizkidazu zure
marrazkiak?

Norak irribarre egiten dio hurrari. Gutun-azal zuri handi bat ateratzen du. Bidaiako marrazki mordo bat ateratzen du bertatik. Surflariak, Mari Feli, Dyane zaharra, gasolindegia eta beste batzuk ikus daitezke horietan. Akuarela, testua eta collagea nahasten dituzte irudiek.

NORA
Egiten ari naizen bidaiakoak dira.

HEGOA
Oso politak dira. Asko gustatzen zaizkit. Nik ere marrazten dut. Margolaria izan nahi dut.

NORA
Oso ondo.

HEGOA
Zu margolaria zara?

Norak sorbaldak altxatzen ditu.

HEGOA
Nik baietz uste dut. Oso polita ateratzen zaizu dena.

NORA
Eskerrik asko.

Hegoak Noraren marrazkiei begira jarraitzen du.

HEGOA
Nire etxean antzeko bat dago. Parisekoa uste dut, marko batean. Zu egon zara inoiz Parisen?

NORA
Ni?

Norak dendarantz begiratzen du. Ximun, Nora eta Hegoari begira dago. Hegoak eskuarekin agur egiten dio Ximuni. Ximun gerturatzen hasten da. Nora jabetu egiten da.

NORA
Nor da hori?

HEGOA

Nire aita.

Nora altxa egiten da. Ximun gerturatu egiten da biengana.

NORA

Kaixo!

XIMUN

Hegoa, zoaz buelta bat ematera.

HEGOA

Agur, margolari!

NORA

Agur. Zenbat denbora, Ximun! Ze kasualitate!

Bi musu ematen dizkiote elkarri, agurtzeko.

XIMUN

Zer ari zara hemen?

NORA

Turismo pixka bat. Denbora luzea da etortzen ez nintzela eta ia-ia ahaztuta neukan herria nolakoa zen.

XIMUN

Uste dut goizean ikusi zaitudala.

NORA

Ez, heldu berria naiz eta hemen eseri naiz justu-justu.

Ximunek baietz egiten du buruarekin.

NORA

Oso atsegina da zure alaba.

XIMUN

Pozten naiz zu ikusteaz. Itxura ona daukazu.

Norak irribarre egiten du.

NORA

Eta, zenbat urte dauzka?

XIMUN

Hegoak? Zortzi urte.

Nora pentsakor gelditzen da.

NORA

Sentitzen dut. Ez nuen espero.
Baina lasai, gaituta daukat eta.
Ez naiz horregatik etorri.

XIMUN

Orduan, bai etorri zara
zerbaitetarako?

NORA

Baina nor uste duzu naizela?
Jendearen atzetik dabilen ero bat?
Obsesionatu bat?

XIMUN

Ez. Barkatu Nora. Ez zintudan
molestatu nahi.

NORA

Baina begira, bideak honaino ekarri
nauela probestuta, pare bat gauza
esango dizkizut. Badakizu zer
zaren? Egundoko madarikatu...

Oihuka hasten da Nora.

BAR. AUTOA. EGUNA

Norak autopistan barrena gidatzen du autoa, abiada bizian.
Eskuan darama telefonoa, bozgorailuarekin. Oihu egiten du.

NORA

Ez zaizkit kontuak ateratzen, Meri.
Zortzi urte gehi bederatzi
hilabete. Ez nengoen zoro. Nire
lehenengo mutil-laguna?
Ze mutil-lagun? Eta badakizu zer?

MERI

Zer?

NORA

Bere alaba zoragarria dela.

Norak bolante-kolpe bat ematen du bidea aukeratzeko.

NORA

Jo egin dut. Zoratuta nago.

MERI

Ximunen alaba jo duzu?

NORA

Ez. Ez. Nola joko dut haur bat?
Ximun jo dut. Zoro baten pare jarri
naiz.

MERI

Nora, ondo zaude?

NORA

Hain zorientsu ematen zuen, hain
lasai. Ez dut benetan jo, baina
gogo biziz pentsatu dut aurpegian
zaplazteko bat ematea. Uste dut
igarri egin didala.

MERI

Ondo zaude?

NORA

Zuekin bizi nahi dut. Penagarria
naiz, pertsona gaiztoa ari naiz
bilakatzen. Maite dudala esan behar
nion.

MERI

Baina Nora, zu ez zaude Ximunez
maiteminduta.

NORA

Dena bere errua zela uste nuen. Eta
orain ja ez dakit ezer. Ez dut
bakarrik egon nahi.

MERI

Non zaude? Ez zara gidatzen egongo,
ezta?

Autoak bat-bateko mugimenduak egiten ditu. Norak istripu bat
dauka.

NORA

Aitite?

Autoa trabes eginda gelditzen da bazterbidean.

BAR. GARABI-AUTOA. EGUNA.

Nora garabi-autoko kopilotuaren aulkian doa eserita.
Plastikozko poltsa garden bat dauka esku artean, aititeren
errautsekin.

KAN. AMOREBIETA-ETXANO. EGUNA

Nora motxilarik gabe dabil oinez Amorebieta-Etxanon barrena. Etxe bateko txirrina jotzen du. Atea irekitzen diote. Barrura sartzen da.

BAR. MERIREN ETXEA. EGUNA

Etxeko atarian, Markelek eta Elenek besarkada handi batekin hartzen dute Nora.

Norak estu-estu besarkatzen ditu.

IKER (34) hurbiltzen da atera. Amantal bat dauka aldean. Ikerrek bi musu ematen dizkio Norari.

IKER

Ondo zaude, istripua eta gero?

NORA

Bai, susto bat baino ez da izan.
Dyane zaharra bera ere arriskuz
kanpo dago.

Iker jangelarantz doa. Norak atzetik jarraitzeko keinua egiten du, baina Markelek eta Elenek gelditu egiten dute.

ELENE

Itxi begiak.

Norak begiak ixten ditu. Markelek eta Elenek egongelara daramate Nora. Egongelaren erdian kanpin-denda daukate muntatua. Barre egiten du Norak.

ELENE

Ondo gelditzen dela etxe barruan?

IKER

Aita izanda, zer egin behar den
gero!

Elenek dendan sartzeko gonbita egiten dio Norari. Bi koltxoneta daude barruan eta, bien erdian, erretilu bat jatekoarekin. Barrura sartzen da Nora, eta atzetik sartzen dira Markel eta Elene. Iker kanpoan gelditzen da.

NORA

Oso polita dago denda.

ELENE

Kontaiguzu zure bidaia!

NORA
Opari bat ekarri dizuet.

Norak bere boltsotik bi hortzetako eskuila ateratzen ditu.

ELENE
Ze motza!

MARKEL
Elektrikoa daukagu.

NORA
Orduan, ez duzue nahi?

Elenek eskua luzatzen du. Markelek eskua luzatzen du. Norak bakoitzari hortzetako eskuil bat jartzen dio eskuetan.

MARKEL
Oso ondo dago. Argia doanerako aproposa.

ELENE
Orain kontaiguzu zure bidaia.

NORA
Ez dago kontatzeko gauza handirik. Herri batzuk bisitatu ditut. Jende interesgarria ezagutu dut.

ELENE
Hori bakarrik?

MARKEL
Ez duzu bidaia handi bat egin?

NORA
Bidaiatxo bat baino ez.

Elenek isilpean hitz egiten du Ikerrek ez entzuteko.

ELENE
Amak zurekin bi egun igarotzerik baino ez zuen nahi, eta zuk alde egin zenuen.

Iker dendan sartzen da eta sandwich batzuk uzten ditu erdian. Norak Iker begiratzen du.

NORA
Haluzinatzen nago, zu etxean eta sukaldari.

IKER
Eszedentzia bat hartu dut.

Harri eta zur gelditzen da Nora.

NORA
Berri ona da hori, ezta?

IKER
Hala uste dugu.

Iker kanpora ateratzen da. Elene eta Markel Norarengana hurbiltzen dira, Ikerrek ez entzuteko. Ahapeka hitz egiten dute.

ELENE
Esnatu eta denda barruan ez zeundela ikustean, negarrez hasi zen, eta ezin zuen gelditu.

MARKEL
Haserre zaudete?

NORA
Zerbait gertatzen zaigu, bai.

Dendatik kanpo, norbait entzuten da etxean sartzen.

ELENE
Entzun duzue?

IKER (O.S.)
Zer ari zara hemen?

MERI (O.S.)
Azken bezeroa ez da azaldu.
Deskantsu hartzera etorri naiz.

MARKEL
Ama da.

ELENE
Haserretu egingo da.

NORA
Ez daki kanpin-denda egongelan jarri duzuela?

MERI (O.S.)
Kanpin-denda egongelan jarri duzue?

Nora, Elene eta Markel denda barruan daude, geldi-geldi.
Merik burua sartzen du barruan irribartsu.

MERI
Nor dabil hor?

NORA

Kaixo!

MERI

Zer ari zara zu hemen?

MARKEL

Norak ez zekien.

MERI

Egon isilik, Markel. Eta jateko hau dena?

Norak jaten ari den sandwicha uzten du platerean.

ELENE

Aitak sorpresa bat egiten lagundu digu.

Ikerrek burua sartzen du dendan.

IKER

Elene eta Markel, utz ditzagun ama eta Nora bakarrik.

Elene eta Markel dendatik ateratzen dira. Nora eta Meri elkarren parean daude eserita.

NORA

Oso goxoak daude.

Norak erretilua hurbiltzen dio Meriri.

MERI

Ez naiz gose. Hau zer da, txiste bat? Kanpin-denda egongelaren erdian eta zu barruan.

NORA

Barkamena eskatu nahi nizun.

MERI

Kokoteraino nago beti zure barkamenak entzuteaz.

Merik ozen hitz egiten du. Ikerrek burua sartzen du denda barruan, irribarrez.

IKER

Etzetik ateratzera gonbidatzen zaituztet. Txikiek eta nik dendaz gozatu nahi dugu.

Meri eta Nora dendatik ateratzen dira.

BAR. TABERNA. GAUA

Nora eta Meri Jonen tabernako barran daude eserita. Ez dute elkar begiratzen. Musika dago, eta giro ona.

NORA
Nire kontu.

MERI
Kontatu dit zure amak
lapurretarena. Zer nahi duzu?

NORA
Gin tonic bat.

MERI
Bi gin tonic, Jon.

Jonek bi gin tonic prestatzen ditu. Gin tonic bat Meriri hurbiltzen dio.

JON
"Spice pijarentzako", bat.

Beste gin tonica Norari hurbiltzen dio.

JON
Eta, bestea, nire
gogokoenarentzako, "spice
kirolariarentzako".

NORA
Mila esker, Jon.

Norak edalontzia igotzen du topa egiteko eta Meri begiratzen du. Merik gogo handirik gabe altxatzen du edalontzia.

NORA
Hainbesterako ere ez zen izan
kanpinekoa.

MERI
Niretzat bai.

NORA
Ez didazu barkatu behar, ezta?

MERI
Ba ez. Ezin da arriskurik gabe
probetxu atera.

Norak zurrutada bat edaten du.

NORA
Ba badakizu zer? Zuk ez duzula
inoiz barkamenik eskatzen.

Merik Nora begiratzen du

MERI
Bale. Nahi duzu barkamena eskatzea?

NORA
Ez. Ez eskatu barkamenik, ez dizut
barkatuko eta.

Barre egiten du Merik. Norak beste zurrutada bat edaten du.

NORA
Ez dizut barkatzen egun batean
nirekin ateratzeari utzi eta zure
seme alabak niri pasa izana ezer
galdetu gabe.

Meri serio gelditzen da. Merik ez du ezer erantzuten.

NORA
Sentitzen dut. Ez nuen halakorik
esan behar.

MERI
Nik ere ez diot neure buruari hori
barkatzen.

Merik eta Norak edan egiten dute.

MERI
Ez dakit noiz utzi genion "spice
girl" izateari.

NORA
"Spice girl" izaten jarraitzen
dugu, ez erratu

Jon begiratzen du.

NORA
"Spice girl" izaten jarraitzen dugu
bai ala ez?

JON
Hil arte.

Norak bere kopa altxatzen du. Merik topa egiten du berarekin.

BAR. NORAREN ETXEA. EGONGELA. EGUNA

Noraren etxeko egongela hutsik dago. Gurrpil-aulkia izkina batean dago. Ez dago oxigeno-makinarik. Mahaia txukundua dago, eta sofa gaineko kuxinak zuzen jarriak.

Nora plastiko barruko aititeren errautsak kutxa polit batean sartzen ari da. Kutxa telebistaren mahaiaren gainean uzten du.

NORA

(gazteleraz)

Hemen hobeto egongo zara. Hainbeste buelta eman gabe.

Nora sofán esertzen da, kaxari begira.

BAR. NORAREN ETXEA. EGONGELA. EGUNA

Norak bidaiako marrazkiak ordenatzen dihardu egongelako mahaiaren gainean. Ordenaz aldatzen ditu. Pili sartzen da egongelan, esku artean herriko aldizkaria dakarrela. Ozen irakurtzen du.

PILI

Miss Horoskopok "laster arte" batekin agurtu gaitu eta "Miss Horoskopo Junior"-i pasa dio testigua. Ziur gaude bere bihotzeko ilusio osoz asmatuko digula etorkizuna. Ezin dut sinistu!

Norak Pili begiratzen du

PILI

Prentsan enteratu behar naiz?

NORA

Erruz ordaintzen zidaten ezer. Aldatu egin nahi dut, zerbait berria probatu.

Javi sartzen da egongelan.

JAVI

Ba oso ona zinen. Ongi egiten zenuen horoskopoarena.

Norak zuzen jartzen ditu marrazkiak. Arnasa hartzen du.

NORA

Eseri, mesedez.

Pili eta Javi mahaiaren alde batean esertzen dira. Norak bira ematen die marrazkiei, gurasoek ikusteko.

NORA

Zer iruditzen zaizkizue?

Pilik marrazki bat hartzen du eskuetan. Javik beste bat.

JAVI

Niri gustatzen zaizkit.

PILI

Niri ez didate ezer esaten.

NORA

Hauekin zerbait egitea da ideia.
Uste dut zerbait egin nezakeela.

PILI

Ez da ilusioa galaraztearren, baina marrazkitxo batzuk baino ez dira. Zergatik ez dituzu koadroak pintatzen?

NORA

Ama, ez nauzu ulertzen. Aita, zuk ikusten duzu?

JAVI

Zuk ikusten baduzu, neuk ere bai.

PILI

Marraztea gustatzen zaizu, ezta? Ba egin koadroak eta egin diezazutela erakusketa bat. Handiago amestu behar duzu.

NORA

Bai. Zuk bezala, ezta?

JAVI

Utz dezagun hemen. Nora, oso ondo daude. Saia zaitez. Nahi duzuna egin dezakezu marrazkiekin.

NORA

Zu isilik aita, oso ondo etorri zaizu eta amak ametsik eduki ez izana. Etxea garbi, arropa plantxatua, eta aititeren ardura hartuz. Eta bera, zer? Ama, zu zer?

PILI

Nora, ezagutezin zaude.

NORA

Ba hori da dagoena.

Nora mahaitik altxatzen da eta alde egiten du

BAR. AUTOA. EGUNA

Norak Dyane zaharra gidatzen du. Leioa konpondu diote. Alboan Javi doa, eta atzean Pili. Pilik leihotik begiratzen du, isilik. Javik ere ez du ezer esaten. Abesti bat entzuten da irratian.

NORA

Polita da abestia, ezta?

JAVI

Ondo dago. Gustatzen zaizu, Pili?

PILI

Bai.

Norak aurrera begiratzen du.

NORA

Noiz arte daukazue pisuaren alokairua?

JAVI

Sei hilabete gehiago luzatzea pentsatu dugu. Oso ondo gaude han.

NORA

Bisita bat egin beharko dizuet orduan.

Norak ama begiratzen du atzerako ispilutik. Pilik leihotik begira jarraitzen du.

BAR. BILBOKO AIREPORTUA. EGUNA

Norak Pili eta Javiren maleta darama. Javi eta Pili bere ondoan doaz oinez.

NORA

Ez arduratu, aita. Ez duzu ikusten gogor nagoela? Bidaiak asko lagundu dit horretan.

Metalen ilarara heltzen dira. Apenas dago inor. Ilara aurrerantz doa. Agur esatea tokatzen zaie. Norak Javi besarkatzen du.

NORA

Ala, orain disfrutatzer. Deitu
heltzen zaretenean.

Aurrerantz doa Javi. Nora Pilirengana gerturatzen da.

NORA

Ondo zaude, ama?

PILI

Jakina baietz. Heltzeko gogo
handiekin. Beldur pixka bat ematen
dit hegazkinak.

NORA

Gaur gutxienez ez dabil haizerik,
ez duzue ziur aski turbulentziarik
izango.

PILI

Zaindu zaitez, kakanarru.

Nora amarengandik banatzen da.

NORA

Zu ere bai.

PILI

Oso ondo gidatzen duzu.

NORA

Eskerrik asko.

Gurasoek nola alde egiten duten ikusten du Norak.

BAR. BILBOKO AIREPORTUA. HALL-A. EGUNA

Norak hegaldien taula begiratzen du helmuga guztiekin.

BAR. AUTOA. EGUNA

Norak erritmo onean gidatzen du Dyane zaharra. Eguzkia dago.

BAR./KAN. HENDAIA. EGUNA

Norak hondartzatik paseatzen du. Norak Ulysses liburu-dendan
lan egiten du. Nora surf egiten saiatzen da. Norak marraztu
egiten du. Norak lagun batzuekin afaltzen du. Norak gutun-
azal zuri pila bat prestatzen du posta bidez ilustrazioak
bidaltzeko.

BAR. ULYSSES DENDA. EGUNA

Nora eta Catherine Domain mahai batean daude eserita, prentsaurrekoa emateko prest. Catherinek erlojua begiratzen du. Norak liburu-dendan sartzen den jendea begiratzen du. Hogei bat aulki daude aurrean. Joseba sartzen da dendan.

Agur egiten dio Norari. Atzeko partean esertzen da. Norak irribarre egiten dio.

Ilustrazioak daude liburu-dendako hormetan, erakusketa gisa. Noraren ilustrazioak dira. Pilatan bilduta editatutako liburu batzuk daude. Bidaia-koadernoak dirudite, NOLA BIDAIATU NORAEZEAN.

Catherinek Nora begiratzen du. Norak arnasa hartzen du. Norak baietz egiten du buruarekin. Nahiko jende sartu da jada dendan. Norak atera begiratzen du ea beste norbait sartzen den ikusteko.

CATHERINE DOMAIN

(frantsesez)

Mila esker gure liburu-denda
kutunera gerturatzearren. Parisen
dagoen bidaia liburu-denda
zaharrenaren ahizpa den honetara.

Berriz irekitzen da atea eta zarata handia ateraz sartzen dira Meri, Iker, Markel eta Elene. Dotore datoz jantzita. Norak ikusi egiten ditu. Lehen lerroan erreserbatuta dauden lau aulki seinalatzen dizkie Norak. Lehen lerrora gerturatzen dira lauak. Norak irribarre egiten du. Eseri egiten dira. Isilean. Catherinek itxaron egiten du eseri arte, irribarre batekin.

CATHERINE DOMAIN

(frantsesez)

Gaur, ilusio eta maitasun handiz,
Nora aurkezteko ohorea daukat, gure
langilea. Berari esker, eta lehen
aldiz, guk geuk editatu dugu bere
erokeriaren edizio txiki bat: Nola
bidaiatu noraezean. Hemen jaio den
ilustrazio-liburu bat, eta hemendik
aterata bidaia ederra desio
dioguna, autorearena baino hobea
bederen. Autorea hemen dagoela
probestuz, berak azalduko dizkizue
hobeto liburuaren nondik norakoak.

Norak oharrez idatzitako koaderno bat begiratzen du. Berriz irekitzen da dendako atea. Pili sartzen da. Norak begiak altxatzen ditu ohar-koadernotik. Pili ikusten du.

Hunkitu egiten da pixka bat. Irribarre egiten dio Pilik.
Zutik gelditzen da izkina batean.

NORA

Beste ezer baino lehen eskerrak
eman behar dizkiot Catherini, guzti
honengatik. Erreferente
izateagatik, hemen egoteagatik,
hainbeste laguntzeagatik.

Publikoak Noraren berbak entzuten ditu. Noraren ezagunek
irribarre egiten dute.

NORA

Gaizki ematen badu ere, heriotza
batekin hasi zen guzti hau. Nire
aititerenarekin.

Norak hunkituta hitz egiten du.

KAN. ULYSSES LIBURU-DENAKO TERRAZA. EGUNA

Lunch txiki bat dago liburu-dendako terrazan. Horma baxu
batek bereizten du terraza hondartzatik.

Noraren gertukoena baino ez dira gelditzen. Markel eta Elene
harean dabilta korrika eta jolasean. Catherinek Josebarekin
hitz egiten du. Pili Noraren liburua irakurtzen ari da aulki
batean. Nora, Meri eta Ikerrekin dago.

MERI

Pantojaren ama bezala sentitu naiz,
zin dagizut. Oso polita zeunden.
Hor, goian. Oso harro nago zutaz.

Ikerrek liburu bat dauka esku artean.

IKER

Hau bai zorakeria. Egia da guzti
hau?

NORA

Zoritxarrez bai.

MERI

Ikusi duzu nire kapitulua?

Ireki egiten du Ikerrek.

MERI

Ezatsegin uzten nauzu, baina ondo atera naiz.

Pili gerturatzen da, liburu bat esku artean.

PILI

Eska diezaioket autografo bat artistari?

NORA

Eskerrik asko etortzearren, ama.

PILI

Ba ez da erreza izan ez pentsa, hegazkina lehenengo eta autobusa gero. Taxi bat hartu behar izan dut azkenean... Justu-justu iritsi naiz.

Pilik lehen orrialdean irekitzen dio liburua. Norak ez daki zer idatzi.

PILI

Eskaini aitari, berak eskatu dit eta.

Idazten hasten da Nora.

PILI

Argi gera dadila nik koadroena hobeto ikusten dudala, eta geroz eta handiagoak orduan eta hobe.

Norak irribarre egiten du.

NORA

Kontutan hartuko dut, ama.

Norak idazten bukatu, liburua itxi eta amari bueltatzen dio liburua.

NORA

Zatoz, norbait aurkeztu behar dizut eta.

Norak Josebarengana darama ama. Pilik Joseba begiratzen du.

PILI

Noraren mutil laguna zara?

JOSEBA

Ez. Norak ez du nahi.

NORA
Hau nire ama da. Argi eta garbi.

PILI
Eta zuk? Nahi al duzu?

NORA
Ama.

JOSEBA
Gustatuko litzaidake.

Norak Joseba begiratzan du. Josebak keinu egiten dio begiarekin. Markel eta Elene Norarengana gerturatzan dira.

ELENE
Markelek dio hegazkin horiek uretatik ateratzen direla.

NORA
Aireportu bat dago hor ondoan. Irudipena ematen du.

MARKEL
Nik hegazkinean joan nahi dut.

ELENE
Nik ere bai. Nora joango gara? Hawaiiira?

NORA
Badakizue nora joango nintzatekeen ni oraintxe bertan?

Norak itsasoa seinalatzen du buruarekin.

ELENE
Baina ez daukagu bainujantzirik.

NORA
Berdin du. Ea, nor lehenengo?

Nora, Markel eta Elene terrazatik ateratzen dira eta itsasorantz hasten dira korrika, arropak kendu gabe. Merik ikusi egiten ditu. Merik eta Ikerrek oiher egiten dute terrazatik.

MERI
Kendu arropak!

IKER
Nora, serio ari naiz, ez daukagu aldatzeko arroparik.

PILI
Korri, korri!

Itsasorantz korrika jarraitzen dute hiruek.

Norak korrika egiten du irribarrez. Itsasertzera iritsi eta urak zipriztin egiten dio aurpegian.

AMAIERA.